



# HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAK  
EAREN ALDIZKARIA

2014ko apirila 1. zka.



Luis Maria Elustondo  
presidentek  
agintaldi honetarako  
jarraibideak  
trazatu ditu

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAK URRATSAK EMATEN DIRAU  
EUSKAL SELEKZIOAK LASTER NORTASUN PROPIOA IZAN DEZAN

# AURRERA



- 2 EDITORIALA
- 3 ZUZENDARITZA BATZORDEA
- 4 ERREALA
- 5 ATHLETIC KLUBA
- 6-7 BIGARRENA ETA HIRUGARRENA
- 8-9 EUSKADI-PERU POSTERRA
- 10 EUSKADI KOPA ESKUALDEAK
- 11 JUBENILAK ETA KADETEAK
- 12 FUTBOL FEMENINOA
- 13 ARETO-FUTBOLA
- 14 E.F.F BATZORDE TEKNIKOAK
- 15 FEDERAZIOEN BATASUNA

©:  
EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea  
Comité de Redacción  
Luis Maria Elustondo, Nerea  
Zalabarría, Jon Ander Gamboa,  
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
Cantera Deportiva S.L.  
Disenu eta Maketazioa  
Diseño y Maquetación  
Cantera Deportiva S.L.  
Argazkiak. Fotografía  
Federación Vasca de Fútbol  
y Cantera Deportiva

HAMAIKA  
Euskadiko Futbol Federakundea  
Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 BILBAO  
Tfnoa: 94 473 19 00  
webmaster@eff-fvf.org  
Depósito legal: En tramitación

Colaborador  
Laguntzailea



Kamaika ez da bere laguntzaileen  
iritziak erantzule egiten  
Hamaika no se hace responsable  
de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIALA

**L**egealdi honen hasieran adierazi genituen helburuen artean, aldizkari bat argitaratzeko konpromisoa hartu genuen, euskal futbolaren inguruko berriak eta kezkak ekarriko zituen eta apaltasun guztiarekin, interes orokorreko informazioa eta heziketa ere bai.

Hamaika aldizkariaren helburua da Euskadiko futbolaren inguruko edozein gertakariren erakuslelhoa izatea. Beraz, FUTBOLA izeneko jarduera zirrargarri eta egundoko honetako protagonista guztien partaidetza bilatzen dugu.

Futbolak giza balio ugari eragiten ditu, adibidez eskuzabaltasuna, sakrifizioa, adiskidetasuna, auto-estimua, leialtasuna... Eta bestalde, bizitzako beste hainbat jardueretan bezala, zoritxarrez, norberekeria, inbidia, indarkeria, ustelkeria...

Gure betebeharra da alderdi positiboa aktibatzea eta indartzea, murrizteko, ahal dugun neurrian, zitalkeria eta negatibotasuna.

Deialdi luzatu bat nahi diegu gurasoei garapen egokirako bere laguntza eman dezaten, gehienbat oinarritzko futbolean.

Zalantzarik gabe lehiatzea, irabaztea dira gure helburuak, guztiok izaten dugu kolore bat gogokoen, baina dena ezin da onartu. Ezinbestekoak dira errespetua, gizabidea, jarrera egokiak, esan ohi den legez irabazten zein galtzen jakitea.

Lehenengo edizio hau aprobetxatu nahi dugu bere mendeurrena ospatzen ari diren klub guztiak zoriontzeko eta gorazarre berezia helarazi nahi diegu **Bizkaiko Federazioari**. Zorionak!

Gurekin harremanetan jar zaitezkezte baliabide erosoaren bidez, ohiko posta, e.mail, etab. Ekarpen oro eskertu eta baloratuko da; gaia edo argudioa hautazkoak dira.

**EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA ZUEN ETXEA DA.**

**D**entro de los objetivos que manifestamos al comienzo de esta legislatura nos comprometimos a editar periódicamente una publicación que recogiera noticias e inquietudes del fútbol vasco y, con toda modestia, información y formación de interés general.

Hamaika pretende ser ese escaparate de cuanto suceda en el fútbol en Euskadi. Por ello, buscamos la participación de todos los protagonistas de esta apasionada y grandiosa actividad llamada FÚTBOL.

El fútbol concita grandes valores humanos como la generosidad, el sacrificio, la amistad, la autoestima, la lealtad... Y como en otras actividades de la vida también, por desgracia, el egoísmo, la envidia, la violencia, la corrupción... Nuestro deber está en activar y enriquecer lo positivo aminorando en lo posible todo lo ruin y negativo. Hemos de hacer un llamamiento a madres y padres para que colaboren en el buen hacer y más aún si cabe en el fútbol base. No cabe duda que salimos a competir, a ganar, y que todos tenemos nuestros colores preferidos, pero todo no vale, ha de haber respeto, educación, buenas maneras, como se dice saber ganar y también perder.

Aprovechamos esta primera edición para felicitar a todos clubes que están celebrando su centenario, con mención especial a la **Federación Vizcaína**. Zorionak!

Podéis contactar con nosotros por el medio que os parezca más cómodo, correo postal, e-mail, etc... Toda aportación será apreciada y valorada y el tema o argumento es libre.

**LA FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL ES VUESTRA CASA.**



Euskadiko federazioko egungo Zuzendaritza Batzordea, Angel Maria Villar Espainiako Federazioko presidentearekin, jendaurreko aurkezpen egunean

## LUIS MARI ELUSTONDOK BERE LEHEN URTEA BETE DU EUSKADIKO FEDERAZIOKO PRESIDENTE BEZALA

*Lana, ardura, zaletasuna eta futbolarekiko maitasuna dira Luis Maria Elustondoren oinarriak, Euskadiko Futbol Federakundea zuzentzeko orduan.*

**Fran Rodríguez**

**B**ete berria du urte bat Luis Maria Elustondok Euskadiko Futbol Federakundeko presidente bezala. Laurehun egun baino gehiago eman ditu euskal futbolaren helburuak bete nahian, hautagai hautatua izateak ematen duen lasaitasunarekin, adostuaren arabera hiru Lurralde federaziotatik: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba. “Esparru positiboan, bateratuan lan

egitea, komenigarria ezik ezinbestekoa ere bihurtzen da. Oraindainoko balizko eztabaidak eta desadostasunak kontuan hartuta, beharrezkoak direla ahaztu gabe, oso gustura nago horien guztien partaidetzagatik eta eman didaten babesagatik” adierazi du pozarren Elustondok..

Federazio erakundeko ardura-dunak jadanik barrutik ezagutzen zituen futbolaren isilpeko kontuak, baina oraingoan klub bateko presidente bezala. “Oso ezberdina da zeren klub batean dena hurbilagoa da, etxekoagoa, organigrama gutxiagokoa. Esparru berriarekin egokitu behar izan naiz eta pozik nago, izan ere, Federakundeko lantaldearen laguntza bikaina jaso dut, horrela nire ustezko moteltasuna modu ezin hobean estaliz. Nire ustean, lehenengo urte hau gaindituzat eman daiteke” esan du.

Hiru urteko agintaldia daukat aurretik, betetzeko dauden erronka amesgarriak ugariak izanik. Horien guztien xedea garbia da: “gure helburua da Euskadiko futbolaren esanetara egotea, gure presentzia eta irudia bultzatuz, gure selekzio ezberdinen garapen egokiarekin, eta ez bakarrik absolutu maskulinoaren lehentasunarekin” adierazi du federakundeko presidentek.

### **ZUZENDARITZA BATZORDEA**

Luis Maria Elustondoren agindupeko Zuzendaritza Batzordea ondorengo kideek osatzen dute:

**Presidenteordea eta komunikazioa:** Nerea Zalabarria.

**Presidenteordeak:** Jose Ignacio Gomez Mardones, Juan Luis Larrea eta Pedro Maria Solaun.

**Diruzaina:** Xabier Irusta.

**Lege Aholkularia:** Pedro Jose Calparsoro.

**Batzordekideak:** Ramon Vicente Azkarate, Gerardo Dañobeitia, Pedro Jaime Dominguez, Amable Fijo, Maria Antonia Galan, Jose Angel Labrador, Maria teresa Redondo, Iñaki Xabier San Jose, Luis Maria Tejedor eta Jesus Maria Villaluenga.

**Aholkulariak:** Jon Agirre, Patricio Allende eta Roberto Perez.

**Idazkari Nagusia:** Jon Ander Gamboa.



### BERRIRO EUROPAN LEHIATZEKO AUKERA BERMATZEKO ZORIAN

Errealak, azken orduko Ehondamendia gertatu ezean, Europan lehiatuko berriro, segidako bigarren denboraldian. Donostiarrak oraindik garaiz daude Champions League-ko beste edizio bat errepikatzeko, Ligaren helmugako zuzen zirrargarri honetan. Talde txuri-urdinak San Mames bisitatu-ko du txapelketaren azken aurreko jardunaldian eta kanpaina ixteko Villarreal-ekin lehiatuko da; orainaldian horiek dira bere aurkari nagusienak laugarren plaza irrikatua lortzeko borroka horretan.

### KOPA FINALAURREKOAREN ITZULERA BI HAMARKADA BAINO GEHIAGOREN ONDOREN

Errealak berriro lehiatu ez zuten Errege Koparen finalaurrekoa 26 urteren ondoren, aurretiko txandetan Algeciras, Villareal eta Racing de Santander kanporatu ondoren. Bartzelona zen bere azken eragozpena finalera heltzeko baina donostiarrak irudi aparta eskainiz galtzaille suertatu ziren. Jagoba Arrasateren taldekoek joaneko partidu galdu egin zuten (2-0) polemikaz inguratuta, eta itzulikoan berriro berdinketa (1-1) lortu zuten.



Errealak, Manchester United-ekin lehiatzen

## ERREALEKO ZALEAK BERRIZ ERE CHAMPIONS LIGUE GOZATZERA

*Lyoneko (sailkapen fasean) eta Manchesterreko bidaia masiboak oraindik ere talde donostiarraren zaleen erretinetan dira.*

### Adolfo Marcos

Taldearen faseko Errealaren fardel urriak, balizko hamabi puntuekiko puntu bakarra, ez du izoratu zale donostiarraren festa eta bere taldearekin hunkitu egin dira Europako txapelketa gorenean. Berezi hunkigarria izan zen taldeen faseari bidea eman eta Olympique de Lyon taldearekin lehiatzera eraman zituen aurretiko kanporaketa. Milaka kamiseta txuri-

urdinen uholdea nagusitu zen Gerland estadioan, festa izugarria eraginez Jagoba Arrasatek zuzentzen duen taldearen ikuskizuna amaitzean. Griezman eta Seferovic jokalariek pasea bideratu zuten bi gol bikain lortuz eta Velak itzulera epaia eman zuten jaurtiketa bikoitzarekin 4-0 emaitza biribila lortuz.

Sentsazio bikain horiek ez zuten iraun ordea taldeen fasean, izan ere, Shakhtar Donetsk taldearen aurka eginiko estropezuak (0-2) jadanik gainerako txapelketa baldintzatu zuten. Gipuzkoarrak gol bakarra sartzeko gai izan ziren, Bayer Leverkusenen aurka eta bere puntu bakarra Anoetan Manchester United taldearekin eginiko berdinketarekin (0-0) lortu zuten, balantze hau donostiarrak eskaini zuten jokorekin bat ez etorri izan arren.

# SAN MAMES BERRIAN BIZIRIK MANTENTZEN DA KATEDRAL ZAHARRAREN MAGIA ETA JADANIK GOTORLEKU BIHURTU DA

*Oraindaino bi talde baino  
ez dira nagusitu  
San Mames berrian,  
Madrilgo Atletico  
-Kopan- eta Espanyol  
taldea -Ligan.-*

**Adolfo Marcos**

**K**atedral zaharretik San Mames berrira eginiko aldaketa ez da izan hasiera batean uste bezain traumatikoa. Gutxiagorako ez zen, atzean utzi behar baitzen ehun urteko une hunkigarritz eta ahaztezinez beteriko ibilbidea.

Athletic Klubak egitura bat aldatu zuen, denboraren joan-arekin zaharkituz joan zena, askoz modernoagoa eta funtzionalagoa

zen beste batengatik ordezteko baina aldaketa horretan nabarmena zen bere lehiakide orok miresten eta errespetatzen zuten izpiritu gorri-zuria. Lehoien denboraldi hasierako lehenengo partidua etxetik kanpo lokal bezala jokatu garatu zen, hain zuzen bizilaguna den Errealaren feudoan, Osasunari nabarmen gailenduz (2-0). San Mames berriaren estreinaldia laugarren jardunaldiarekin heldu zen, ohiz kanpoko gonbidatua Celta de Vigo izanik, asteleheneko 22:00etan, nola ez, txapelketa honetan zale bilbotarrek nahi baino gehiagotan errepikatu izan den ordutegian. Brasilgo Charles Dias-ek izan zuen ohorea hamalau-garren minutuan lehenengo gol ofiziala sartzeko Bizkaiko tenplu berrian. Zorionez tanto hori ez zen erabakigarria izan Vigokoentzat,

izan ere, Ernesto Valverderen jokalariek denboraldi zirraragarri honetan errepikatu dituzten igoretako lehenengo garatu zuten.

## **VALVERDEREN XARMA**

Agertoki aldaketarekin batera aulkian ere aldaketak antzeman dira. Ernesto Valverdek Marcelo Bielsa ordeztu zuen, gorri-zurien entrenatzaile bezala bigarren etapan aurkitzen zenean eta bere fitxaketa iragartzean eraginiko ilusioak gorantz egin du joko onaren eta eskaini emaitza bikainen bidez. Lehoiek euren joko konbinatu eta posesiboa alde batera utzi dute eta betiko bere nortasunaren seinaleak berreskuratu ditu, hau da, futbol zuzenagoa eta bertikalagoa.

Premisa horiekin eta bere gatzetasunagatik zein kalitate nabarmenagatik definitzen den taldearen eskutik, Athletic Kluba irmo dago laugarren postuan, bere ametsa Europako txapelketa gonenera itzultzea izanik.

Etxean lorturiko zenbaki bikainez gainera etxetik kanpoko bere hobekuntza nabarmena aipatu behar da, madarikatutzat hartu ohi diren zelaietan, esaterako El Madrigal edo Mestalla, puntuak lortzean, edota El Sadar zelaiko gol-kopuru ikusgarria (1-5) eskuratzean.



Athletic gola ospatzen San Mamesen/ Pablo Viñas

**BI FILIALAK  
KATEGORIEN  
JAUZI BIKOITZAREN  
BILA DABILTA**

**B**ilbao Athletic eta Basconia taldeen denboraldia ikusgarria izaten ari da, denboraldiko une erabakigarria heltzeko aukera izanik, igorerako play off-etan sartzeko lortzekoa barne. Zigan-daren taldekoak goian mantentzen dira hasieratik, Vicen Gomezenak igoera bikaina lortu duten bitartean.

# EIBAR ETA ALAVES BIGARREN A MAILAKO EUSKAL TALDEEN AURPEGIA ETA GURUTZEA DIRA

*Armeroak Lehenengo Mailarako igoera historikoa borrokatzen ari dira, babazorroak Zilarra kategorian salbatzeko asmotan dabiltzan bitartean.*

**Txemi García**

**E**ibar Kirol Elkartea eta Deportibo Alaves dira estatuko futbolaren Bigarren Mailako gure futbolaren ordezkariak. Talde biak mantentzearen aldeko helburu komunarekin abiatu ziren eta txapelketak aurpegia eta gurutzeta izatera eramane zituen.

Klub armeroa Lehen Mailara igotzeko zorian dago lehen aldiz, 1940an fundatu zenetik, jadanik aparta izaten ari den kanpaina batean. Gertaera gogoangarri hori klubeko bulegotan antolatzen ari diren 75. urteurrena ospatzeko ginga izango litzateke. Gaizka Garitanoren jokalariek Liga zalan-tzan hasi zuten, hainbat partidu lotu ezinik, galdu gabe, 8. jardunalditik aurrera hamabost puntutik hamaika lortu zituzten arte. Inflexio-puntua izan zen Ipuruaren jokalarientzat; borrokara ate handitik sartu ziren eta euren lana omendua izaten hasi zen Jose Luis Morales entrenatzaile eta jokalaria onena bezala aldarrikatu eta sarritua izatean, joan den abenduan, BBVA Liga Adelante-ren eskutik.

Berri onez haratago bazegoen besterik, izan ere, arestian Alcorconek Errege Kopatik kanporatu zituen gorri-urdinak hirugarren

txandan, urrian, Teneriferen aurka garaipena lortzean (1-0) sailkatu ondoren. Eibar taldeak atearen aurrean erreakzionatzeko gaitasuna erakutsi zuen torneoan eta esfortzuaren poderioz eskuratu zuen 25. jardunaldian kategoriako lehen postua, Cordobari irabaztean (0-2). Otsaila hori bereziki aparta izan zen hiru garaipen kateatu baitzituen eta berriro Garitano mister onenaren sariarekin omendua izan zen, Jota Peleteiro bere ardura-pekoko kidea lagun.

Euforia une horietan teknika-riaren diskurtsoa erabakigarria izan zen gogorarazi nahian kluba Bigarren Mailako aurrekontu




Eibar eta Alaves, der biaren irudi batean/ Jon Izarra

urrienera izateaz gainera igo berriak zirela: “Ez daukagu izarririk, ezta jokalaria ospetsurik ere, baina hona hemen gure sekretua: gose gara benetan eta taldearen batasunari munduko garrantzi guztia ematen diogu”. Eta azpimarratu

## BIGARREN B KATEGORIAKO II. MULTZOKO ZAZPI EUSKAL TALDETIK HIRU PLAY OFF-AREN BILA DOAZ

**B**izkaiko lau taldeetatik (Sestao, Bilbao Athletic eta Barakaldo) hiru dira Bigarren A Kategoriarako igotzeko sustapena eskuratzeko moduan daudenak, aldiz beste bat (Amorebieta) amaiera arte borrokatuko da hurrengo Errege Koparen edizioan lehiatzeko. Gipuzkoako ordezkarien helburua da, besteak beste, kategoria salbatzea; Sanse taldeak hori behar bezala bideratuta dauka, aldiz Real Union taldeak sufrimendua pairatu beharko du amaieraraino, Laudio talde arabarrak bezalaxe, denboraldi honetako bere geografia konfigurazioagatik ezohiko taldea izanik.





zuen: "Taldea gizabanakoaren gainetik jarriko dugu, klubaren filosofia da eta negoziatzina gainera. Lerrokatuta 8 edo 9 jokalaririk ari dira jolasten, jadanik aurreko denboraldian Bigarren B kategorian lehiatu zirenak". Otsaila horretan berri txar bat iritsi zen; Kiroletako Kontseilu Gorena Eibar taldearekin harremanetan jarri zen, bere gizarte kapitala 1,7 milioi euroekin hedatu beharko zuela jakinarazteko, abuztuaren 6a baino lehen, administrazio jaitziera bat ez jasatearren. Arrazoia Errege dekretuaren aplikazioan datza, zeinek kategoria profesionaleko klubak behartuko dituen gizarte kapital minimo bat estaltzera. Arau horren aurrean Zuzendaritza Batzordeak errekurtsoa jartzea erabaki zuen kopurua murrizteko asmoz zeren kluba saneatuta dago eta bere ekonomia egoera gizarte kapitalak adierazten duena baino hobea da. Ondorioz, Administrazio kontseiluak erabaki zuen akziodunengana gai honen inguruko deialdi bat luzatzea Akziodunen Ezohiko Batzorde Nagusirako, 2014ko apirilaren 6an, kapitalaren hedapenez

hitz egiteko.

### **HIRU ENTRENATZAILE**

Alaves taldea iraunkortasunaren aldeko borrokan murgilduta dago. Gasteiztarrek 12/13 igoera lortu zuten, erronkari aurre egiteko Nacho Gonzalez mister bezala mantenduz.

Ibilbidea abiapuntuan okertu zen eta abenduaren lehenengo astean klub gasteiztarrek bere teknikaria kargutik kendu zuen 16 puntu ekarri zituzten 16 jardunaldiren ondoren. Gonzalez ordeztua izan zen bere karguan Juan Carlos Mandiagatik. Lehen eta Bigarren Mailako Kategorietan esperientzia zuen teknikaria, Logroñes, Real Madrid Castilla, Racing de Santander, Tenerife eta Hercules taldeak zuzentzen. Coruñaeko porrotaren emaitzarekin teknikariak estreinaldi garrantzia jasan ondoren, txuriurdinek sei puntu lortu zituzten hamabitik, jarraian emaitza bolada onena lortzeko 22 eta 25. Jardunaldien artean, hamabitik zortzi puntu lortuz. Hala ere, Medizorrozako taldea lau porroteko zulo ba-



### **LEIOAK AGINTZEN DU HIRUGARREN BATEAN ZEINETAN PLAY OFF-A ABIATUKO DEN**

**L**eioa agintean jarri da, beste hiru sustapen plazak lortzearen borroka latza eragingo duen txapelketa batean; zazpi jardunaldi falta direnean, Arenas, Portugalete, Basconia, Alaves B eta Gernika dira hautagai nagusiak. Azpitik, eta Retuerto zintzilik, taldeak balizko arrastearen zain daude. Bestalde, Balmaseda, bere mendeurrenean, Federazio Kopako finalurrekoetara heldu zen; torneo honetan kanporatu egin zuen Ourense taldeak, Zalla, Alaves B, San Juan, Tropezon eta Real Union taldeekin garaile suertatu ondoren. Gorri-urdinek 15.000 euro irabazi zituzten.

tean sartu zen, Alcorcon taldearen aurka etxean lorturiko garaipen bakarrarekin. "50 puntu lortu behar ditugu eta lanean jarraitu behar da", zioen Mandiak Mirandes taldearen aurka galtzean baba-zorroak salbaziotik bost puntura geratu zirenean. Baina zazpi egun geroagoko 31. jardunaldiko porrotak, Bartzelona B taldearen aurka, Mandiaren kargugabetzea suposatu zuen, Alberto Lopez, ordura arte bigarren entrenatzailea izan zena, taldea zuzentzera pasatuz.

Alaves taldeak, Eibar taldeak bezalaxe, abentura laburra bizi izan zuen Errege Koparen K.O. torneoan. Gasteiztarrek hasiera batean nagusiagoa zirudien Zaragoza bezalako aurkaria kanporatu zuten (1-0) bigarren txandan, baina ondorengo konpromisoan penaltien tandan erori ziren aurkarien zelaian, Gironaren aurka.



Festa eta erre

# EUSKAL SELE







rebindikazioa

# LEIZOLA-PERÚ



# EUSKADIKO SELEKZIO AMATEURRA BITARTEKO TXANDAN ERORI DA GAZTELA ETA LEONEN AURKA

*Paper bikaina bete zuen euskal selekzio zaleak estatuko amaiera fasera iritsi ez izan arren. Hiru kolorekoa ez zen kikildu Gaztela eta Leonen aurrean.*

**David Novo**



Euskadiko selekzio amateurra, Lezaman

**E**uskal selekzio amateurra kanporatua izan zen Eskualdetako UEFA Koparen estatu faseari zegokion bitarteko txandan, Gaztela eta Leonen aurka kikildu ez izan arren, zeinek Euskadik bezala, jadanik nazioarteko metalarekin kontatuko duen bere beira-arasetan.

Fernando Perezek entrenatzen duen konbinatuak lehenengo txandan kanporatu zuen Cantabria, La Floridan, zero berdinketaren emaitzarekin, eta Canarias taldea ere bai, Garmendiaren gol bategatik nagusitu baitzitzaion Sarriengan, uhartekoek arestian Kantabriako taldeari irabaztea lortu izan arren (1-0) Zamudion, taldeen fase batean, zeinetan Euskadi anfitrioi izango zen. Baina hasierako taldeen zozketaren arabera, hiru kolorekoak bitarteko kanporaketa lehiatu beharko zuen, Gaztela eta Leon, Valentzia eta Gaztela - Mantxa taldeko garaileak bezalaxe, zuzenean laurako finalean sartu beharrean, Andalucia, Murcia eta Catalunya beste garaileek egin zuten bezala.

## **BAIMENETIK GOL BATERA**

Lezaman ospatu zen joaneko norgehiagoka, Gaztela eta Leon



Gaztela Leon eta Kantabriaren aurkako partiduak

konbinatuaren aurka. Lokalen nagusitasuna agerikoa zen partidu batean, atsedenaldira aldeko markagailuarekin heltzea espero zenean, Gaztela eta Leoneko taldeak aurrea hartu zuen Ivi Valesek erraz menderatu zuen eraso batekin, bigarren atalaren erdialdean. Euskadik gogor ekin zuen eta berriro helmugako zuzenean emaitza berdindu ahal izateko hainbat aukera izan zituen. Zazpi egun geroago, eta Fernando Perezen tal-

deak kanporaketa berdinketa lortu izan arren, Astorgako bigarren atala abiatu bezain laster Madrazok sartu zuen golarekin, Euskadi atzean geratu zen, Victorren aske zuzeneko golaren eraginez, irudimenezko falta bat zela medio. Zorritzarreko 78. minutu horretatik aurrera eta amaiera arte jokoa etengabe geldiarazi zen, euskal selekzioak estatuko amaiera fasera heltzeko beharrezko emaitza lortu ezin izanik.



Euskadiko Selekzio Jubenila



Euskadiko Selekzio kadetea

# EUSKADIKO SUB'16 ETA SUB'18 SELEKZIOAK KANPORATUTA ESTATUKO TXAPELKETAREN BIGARREN FASEAN

*Euskal konbinatuek paper bikaina bete zuten lehenengo fasean. Hala ere, zelai-eremuaren faktorea gutxiesten ez zuten lortu amaiera fasean sartzea.*

**Raúl A. Collantes**

**E**uskadiko Sub-18 eta Sub-16 konbinatuak ez ziren heldu Autonomia Selekzioen Txapelketa Nazionalako amaiera fasera.

Lehenengo faseak, abenduan Guadalajaran ospatu zenak, hiru kolorekoa neurtu zuen Gaztela Mantxako eta Murtzia Eskualdeko selekzioekin.

Bai konbinatu jubenila, Aitor Villarren eskutik, eta bai talde kadetea, Jose Luis Txakartegi entrenatzailearekin, emaitza onak eskuratzera heldu ziren euren partiduetan. Sub-18 taldea lau punturekin abiatu zen eta Sub-16a berri, seirekin.

Bigarren fasean euskal konbinatuak lokalak izan ziren, horrek amaiera fasera heltzeko aukera gehiago emanez. Gaztela Leon eta

## ERREALA NAGUSI AUTONOMIA LIGA JUBENILETAN

**E**rreala lehiakortasun maila bikaina ari da erakusten. Bere bi lehenengo talde jubenilak liderrak dira Ohorezko Jubenila eta Nazional Jubenila sailkapenetan. Athletic Klubak buru-belarri defendatzen du lehenengo postua Euskadiko Liga Kadeteen, talde gorri-zuriaren aurkariak zanpatuak bailiran.

Danak Bat beste talde bilbotarra soilik ari da Lezamakoak atzean uzten, Erreala zein Alaves taldeen gainetik ezarrita. Gasteizkoak euren protagonismo kuotaren bila dabilta Ohore, Euskadi eta Kadete mailatan.

Kanarietako taldeekin neurtzeko unea zen. Dena den, inaugurazio jardunaldia Gaztela-Leonekoen aurka jasandako bi ustekabeko sastadekin itxi zen. Sub-18aren emaitza 1-1 berdinketa eta Sub-16arena 0-1 galtzea izan ziren.

Emaitza horiekin gure ordezkariak zelai-eremua faktorearen abantaila galdu zuten, karanbolen mendean jardutea zegokion.

Alferrikakoak izan ziren jarraian Kanarietako taldearen aurka lorturiko bi garaipenak. Bi garaipen gazi-goza. 2-0 Aitor Villarren taldearentzat eta 5-1 Jose Luis Txakartegiren jokalarientzat. Euskadi amaiera fasetik kanpo geratu zen.

Jubenilen kasuan, aurkako gol bakarra jasota. Kadeteek puntu bat falta izan zitzairen. Taldeak Gaztela eta Leonen atean azkeneko unean lortu zuen faltaren golarekin ihes egin zuen puntua.

Onena, zalantzarik gabe, jokalaria hautatuen seriotasuna, konpromisoa eta lan gogorra.

# EUSKADI SUB'18 ETA SUB'16 SELEKZIOEN ESTATU TXAPELKETAREN BIGARREN FASEAN ERORI DIRA

*Sub'18 taldea amaiera faseko atetan geratu da golaberajearen eraginez, aldiz sub'16ak bigarren faseko lehenengo norgehiagokan galdu ditu bere aukerak.*

**Txemi García**

Euskadi sub'18 eta sub'16 kanporatuak izan ziren autonomia selekzioen estatu txapelketaren bigarren fasean. Jose Alvarez eta Sergio Rivera entrenatzaileen neskek, hurrenez hurren, lehenengo txapelketa faseari aurre egin zioten, abenduaren 20tik 22ra, Sant Joan Despi (Bartzelona) udalerrian, anfitrioiaren eta Extremaduraren aurka neurtuz.

Lehenengo norgehiagoka gainera erabakigarria gertatu zen, izan ere, gureak Katalunyen aurka galtzaile suertatu ziren. Nagusienak partidura heltzean jabe ziren gogokoenen arteko baten aurrean puntuek zuten garrantziaz eta laurogeigarren minutuko tanto batek ebatzi zuen emaitza. Aldiz, txikiak galtzaile izan ziren lokalekin lehiatzean, 5-0 emaitza biribilarekin. Lehenengo hogeita bost minutuetako bi golak eragozpen astunegiak gertatu ziren.

Porrotaz haratago, bi taldeek erreakzionatu zuten larunbateko partiduan. Alvarezen ardurapekoak erraz gailendu zitzaizkien estremadurarei (3-0) eta Riverarenak garaile suertatu ziren (3-1). Lorturiko hiru puntuekin ezinbestekoa zen beste Euskadiko fase

biribil bat garatzea eta emaitzak aldekoak izatea lehenengo lauen artean finkatzeko. Otsailaren 21etik 23ra Picasent (Valladolid) udalerrian norgehiagoka erabakigarriak lehiatu ziren Valentziaren eta Kanariaren aurka. Sub'16 taldeak berdinketa lortu zuen Valentziarekin (1-1), birtualki kanporatua izanik; bere partaidetza estremaduraren aurka amaitu zuen (0-0) emaitzarekin. Samingarriagoa izango zen sub'18 taldearentzat, Finala errepikako borrokatzean. Hiru kolorekoaren jokoak Valentzia suntsitu egin zuen (3-0) eta bigarren partiduan Kanarietakoak kanporatu zituzten (3-1). Bederatzi puntuak itxaropentsuak izan ziren jardunaldi erabakigarriari begira baina Euskadi hiruga-

**NESKA EUSKALDUNEN MAILA BIKAINA LIGA GUZTIETAN**

**A**thletic eta Errealaren taldeek erakutsi dute euskal futbolaria gai dela Lehen Mailako elitean lehiatzeko. Zurigorriak txapeldunorde izan nahian ibili dira eta txuriurdinak berriz, berriro Errege Kopara sartzeko asmotan, aurreko denboraldian kanporatuak izan ondoren. Zilar nazionalaren kategorian Athletic-en filialak liga titulua eskuratu nahi du eta gureak sufritzen ari dira behealdean. Mondragon taldeak kategoria galduko du, Barakaldo hura mantentzearen borrokan dabilen bitartean, 12/13an Euskal Ligako txapelduna izan ondoren. Euskal kategorian Mariño taldea garaile aldarrikatu da, txapelketaren helmugako zuzenean.

renen mendean jardun zenez, ezin izan zen gailendu. Dena den, joko eta portaera ezin hobek izan ziren.



Euskadi sub'18 taldea



Euskadi sub'16 taldea

# EUSKADI LEHEN FASEA GAINDITU GABE PARTAIDE IZAN DEN HIRU TXAPELKETETAN

BILBON OSPATUKO  
DA ERREGE KOPAREN  
FINALA, M-3AN

**M**iribilla Polikirol-  
degian ospatuko  
da Errege Koparen finala,  
datorren maiatzaren 3an.

*Euskal selekzio bakar batek (jubenil eta kadete maskulinoak eta sub'21 femeninoa) ez zuen lortu bere sailkapena. Euskadi egoitza izan zen 2 txapelketetan.*

**Iker García**

**E**zinezkoa izan zen. Euskadiko areto-futboleko konbinatu bakar batek ez zuen lortu lehenengo Fasea gainditzea, zegozkien estatu txapelketetan. Bestalde, euskal zaleek txapelketa hauetakoz batzuek gozatu ahal izan zituzten, fasetako bi gure lurraldean ospatu zirenez: neskak Galdakaon eta kadeteak Gasteizen.

Lehenengo partaideak Ivan Cordón entrenatzailearen jubenilak izan ziren; Lleidaraino lekualdatu ziren Kataluniarekin eta Ceutarekin lehia-tzeko. Hiru koloreko jubenila gal-tzaile suertatu zen anfitrioiaren aurka 9-0 emaitzarekin eta Ceutaren aurka 3-2 emaitzarekin.

Joseba Huleren talde femeninoa izan zen hurrengo partaidea, Galdakaon lehiatuz Katalunia eta Galizia bikainen aurka. Euskaldunak gal-tzaile suertatu ziren 0-8 emaitzarekin Kataluniako taldearen aurka eta 0-13 emaitzarekin konbinatu galiziarren aurka.

Amaitzeko, Asier Navaroren selekzio kadetea ere ezin izan zen hurrengo fasera pasatu. Txapelketa hau Arabako hiriburuan ospatu zen eta ezin izango zatekeen hobeto hasi, izan ere, hiru kolorekoa garaile suertatu zen 2-0 emaitzarekin Kanariaren aurka; baina Murtzia ahaltsuarekin lehiatu zuen partidu erabakigarria galdu egin zuen, 10-0 emaitzarekin.



Jubenila



Kadetea



Femeninoa

# BATZORDEEK HURRENGO HIRU URTETARAKO BERE JARRAIBIDEAK AGERIAN JARRI DITUZTE

*Arbitro, entrenatzaile eta areto-futbolaren arduradun tekniko gorenena jabe dira agintaldi honetan lortu beharreko helburuetaz.*

## Carlos Zárate

Legealdiaren lehen urtea igaro ondoren, arbitro, entrenatzaile eta areto-futbolaren batzorde teknikoetako presidentek balantze bat egin dute, agintaldiaren hurrengo hiru urtetan lortzea falta diren erronken ingurukoa.

Jon Aguirre Euskadiko arbitroen batzorde tekniko arduradun nagusiak, bi helburu nagusi finkatu ditu. Lehenik eta behin, “nazioarteko arbitro euskaldunak lortzea”, eta bigarren, Hirugarren Mailako arbitroen “babez besteko adina murriztea”. “Talentuak bilatu nahi ditugu, kategoriaz igo daitezkeen arbitro gazteak”, azaldu du. Gaur egun gehieneko adin bat (30 urte) dago indarrean, Bigarren B Mailara bitarteko jauzia egin ahal izateko. Dena den, Aguirrek esan bezala, beteranotasuna eta gaztetasuna nahasketa oso garrantzitsua da. “30 urtetik gorakoak ere beharrezkoak dira hainbat partidutarako”, esan du.

Era berean, euren beste helburuetako bat da lortzea “hemendik hiru urte bitarteko epean, bi arbitro euskaldun Lehen Mailarako”. Une hauetan, Portugalgo Carlos Delgado Ferreiro da estatuko futbolaren elitean eskuragarri dagoen ordezkari bakarra.



Patri Allende, Roberto Pérez eta Jon Aguirre

## BIRZIKLAPEN KOMUNA

Roberto Perez entrenatzaileen euskal batzordeko arduradunak adierazi du zuzentzen duen proiektua “kontrolaren batasuna” bultzatzeko dela entrenatzaileen hiru elkargoetan: bizkaitarra, gipuzkoarra eta arabarra. Era berean, murgilduta daude “entrenatzaile guztien birziklapenean” ikastaroen bidez. “Urtero ematen dugu ikaskuntza mota hau entrenatzaile berrientzat”, dio Perezek, eta azpimarratu egin du halaber “atezainen entrenatzaile” izateko ikastaro zehatza eskaintzearen eginiko “apustua”.

Informazio honi guztiari erantsi behar zaizkio “metodologia ikastaroak”, hiru lurraldetako teknikarien prestakuntza hobetzearen ematen direnak. Bestalde, euren

irudia baloratua izan dadin, urtero ospatu izaten dute data ezberdinetan “Entrenatzailearen eguna”.

Bestalde, Patri Allende areto-futboleko batzorde teknikoaren arduradunak lehiaketa atalean “Senior Euskal Kopa finkatzea, areto-futbol femeninoa berreskuratzea eta kategoria oinarrian lehiaketak homogeneizatzea” nahi du. Era berean, heziketa arloan, Allenderen nahia da “teknikarien eta arbitroen prestakuntza bultzatzea eta sustatzea”. Euskal selekzioen inguruan, “ikuskaritzapean eginiko teknifikazio planak” bultzatuko dituzte eta estatu txapelketetako partaidetza aurrerapausoak ematea bilatuko dute kalitatearen estandar minimo batzuekin” adierazi du Allendek.



# EKFB-REN NAHIA DA EUSKAL FEDERAZIOEN JARDUERA BERE KIROLAREN INGURUKOA SOILIK IZATEA

*Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB) erakundeak oinarri komunak bilatzen ditu Euskadiko kirolaren hobekuntza eta garapena bultzatzearen.*

**Rubén Bueno**

**E**uskal Kirol Federazioen Batasuna kirol erakunde bat da, nortasun juridikoa duena, eta bere helburuak dira kirolaren hobekuntza eta garapena lortzeko oinarri komunak bilatzea, bere kirol helburuen defentsa eta

konplimendu hobea eta kirol federaziotako administrazio egitura komun en edo laguntza teknikoaren ezarpena.

Era berean bete dezake, bere eskumeneko eremuan, Euskadiko Kirol Administrazioaren aholkulari funtzioa, kirol federazio bakoitzak bere kirol esparruan izan dezakeen aholku gaitasun bereziari utzi gabe.

Misio garrantzitsua da, esfortzu handia eta baliabideak eskatzen dituena, euskal federaziotarako beharrezko babesa eta estaldura suposatzen du, hauek nazioarteko txapelketetan euskal selekzioen partaidetza sustatu eta bultzatu ahal izan dezaten.

**Helburuak ondorengoak di-**

**ra:**

a) Kirol Administrazioaren aholkularitza

b) Euskadiko kirol federatuaren hobekuntzarako eta garapenerako oinarri komun en artikulazioa.

c) Kirol federazioen defentsa eta helburuen konplimendu hobea sustatzea.

d) Kirol federazioen onurarako administrazio egitura komun en edo laguntza teknikoaren ezarpena.

e) Euskadiko kirol federatuguztien ordezkartza.

f) Kirol federazioen arteko solidaritatearen eta armoniarene sustapena eta arbitraje jardueren ardurara, euskal eremu federatuaren gatazkak ebazteko.

g) Euskadiko edota antzeko ezaugarrietako beste lurralde eremu batzuetako kirol organismo batzuekin elkarlanean aritzeko harremanen ezarpena.

h) Euskadiko kirol selekzioak beste herrialde, nazio edo eskualde batzuetako selekzioekin lehia-tzea ahalbidetzen duten nazioarteko izaerako organismoen sustapena.

i) Kanpoan eginiko Euskadiko kirol federatuaren sustapena.

Gure funtzioen baitan zerbitzu komun en gutuna eta euskal federazio guztiekin partekatzen diren sailak izan ahal ditugu hizpide, horiek burokrazia eta administrazio zereginetatik liberatu daitezzen, horrela alferrikako kostuak saihestuz eta bere kirolaren zein kirolari en gestio berezarako denbora zainduz. Hau da, euskal federazioen diru guztia euren kirol modalitatearen sustapenerako eta garapenerako erabili dezatela eta ez administrazio edo bigarren mailako gastuetan, horiek EKFB-ren ardurapean komunak eta doakoak izatea bultzatuz, horrela gestio ekonomikoaren eraginkortasun hobea hala nola euskal sare federatuaren sostengu hobea lortuz.

**Los Chupos Etorbidea z/g,  
Fadurako CPT eraikina, Getxo  
94-6232689  
ekfb@euskalkirola.com**



# EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

HOME

TXAPELKETA

ARAUDIA

FEDERAZIOA

JARDUERA

KONTAKTUA



FEDERAKUNDEAREN APP  
AURKEZTEN DUGU.  
IOS ETA ANDROID

DESCARGATU

www.eff-fvf.org



**Hamaiika**  
EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

*Jadanik aldizkari hau pdf  
formatuan deskargatu dezakezu*



**EFF-FVF-ren  
informazio  
guztia**

**click  
batekin**

[www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org)



EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA



TXAPELKETA  
Txapelketak  
Ikuskizunak  
Klubak  
Zirkularrak  
Berriak  
Joko-eremuak

FEDERAKUNDEA  
Presidentearen Agurra  
EFF-FVF Zuzendaritza Batzordea  
EFF-FVF Kirol Justizia Organoak  
Futboleko Arbitroen Euskal Batzordeko Zuzendaritza Batzordea  
Areto Futboleko Euskal Batzordeko Zuzendaritza Batzordea  
Entrenatzaileen Euskal Batzordeko Zuzendaritza Batzordea  
Selekzioak  
Kontaktua

Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 Bilbao  
Tif.: 94 473 19 00  
Fax: 94 473 22 21